

{ asteari zeharka begira } **Iñaki Altuna**

Berandu.... baina garaiz

Ezker abertzaleko Abian prozesuaren eztabaida txostenak surfari aipamena eginez esaldi deigarri bat jasotzen du: «Egindako mugimenduaren inertziaren baitan surf eginez aski izanen genuela pentsatu genuen hasieran. Alta, gure oinetan agortu da olatua eta ez dugu ulertu mugimendu eraldatzaileak, olatuak baliatu baino gehiago, olatuak sortu behar dituela».

Afera ez da soilik ezker abertzalearena, krisi edo kolapso politikoa herri gisa egin beharreko prozesuari ere baitagokio. Behin baino gehiagotan esan da estatuek –berezi pipiak jota dagoen espainolak– ez dutela gaitasunik Euskal Herriari sakoneko eskaintza demokratikorik egiteko, inposizioa mozorrotzeko ahalegin autonomikoaren iruzurra agerian geratu ostean. Aldi berean, autonomismo horren birfundazio hutsetik ezin daitekeela ezer espero nabarmendu da askotan, eta, horretxegatik, EAJk denbora irabazten eta eztabaida maila txirotzen segitzen du. Urkulluk berezko eremu kutun duen EAeko hauteskundeak Estatu mailako hauteskundearen egun berean egiteko proposamenak EAJn ere harridura sortu omen du, “euskal” berezitasuna are eta gehiago lausotuko zuelako. Horixe da, beraz, lehendakari horrek ematen duen maila. Hori dena horrela izanik ere, egia da burujabetza prozesurik ere ez dela egituratzerik lortu, ez dela 2011ko gertaerekin (Aieteko Konferentzia eta ETaren borroka armatuaren amaiera) abiarazitako zikloak ahalbidetzen zuen herri prozesua –aldebikotasunaren aukera urruntzen zela ikusita, gainera– altxatzea lortu. Beraz, aipatu krisi edo kolapso politikoa iritsi da azken urteotan, eta horrek bete-betean eragin dio aldaketa bideratzeko apustua egin zuen ezker abertzaleari.

Hortik dator, hain zuzen, Abian prozesuaren beharra, estrategia aldaketa gaurkotzeko ariketatzat hartuta. Bestelako interpretazioak ere egon dira, eskasagoak eta batzuetan petral samarrak, atzera begiratzeko joerekin eta aro berriak behar duenari erreparatu gabe.

Seguru asko, estrategia berriro kokatzeko ariketa hori askoz ere lehenago egin behar zuen ezker abertzaleak, inertziak eta “Abian” berak aitortzen dituen jarrera desegokiak berriro errotu baino lehenago. Estrategia aldake-

tari kultura politikoaren berritzeak segitu behar ziola ere entzun genuen bere garaian, baina egia da, azkenean, duela sei urte baino gehiago (2010eko otsailean onartu zen “Zutik Euskal Herria” ebazpena) egindako apustuak sortutako olatuen indarra amaitu den arte ez dela urratsik egin, ezinbestean egin behar izan den arte. Eta horrela, adibide ikusgarri bat jartzeagatik, Arnaldo Otegiaren irteeran barne faktoreak, etxekoak berpizteko ahaleginak, behar baino pisu handiagoa izan duela pentsa daiteke. Edo beste modu batez esanda: ordurako etxeko lanak aurerratuago izan behar zituzten, are eta onura handiagoa ateratzeko Otegiaren irteerari ere.

Kanpo faktoreek ere zailtasunak gehitzen dituzte. Alde batetik, EH Bilduk hauteskunde erronka gainean du, arnasarik hartzeko denborarik gabe, eta, bestetik, Estatua-ren presioak eragina izan dezake, bi zentzutan: errepre-sio mekanismoak mantenduz (iragarri da beste

Seguru asko, estrategia berriro kokatzeko ariketa askoz ere lehenago egin behar zuen ezker abertzaleak, inertziak eta «Abian» berak aitortzen dituen jarrera desegokiak berriro errotu baino lehenago

makroepaiketa bat) eta ezker abertzalearen zatiketarako aukerak hauspotuz. Helburua argia da: Euskal Herrian ez dadila Kataluniaren moduko, antzeko, tankerako bigarren frontierik zabaldu. “Gatazka” ezker abertzale txiki, hautsi eta hesitu batekin nahiko luke Madrilek.

Halere, azken boladan ezker abertzaleak zenbait mugimendu esanguratsu egin ditu: Abian prozesua bera (bere ondorioak Sorturen Kongresuan ikusi beharko lirateke berehala), presoen gaia agendan jartzeko ahalegina eta Otegi, barne ikuspuntutik harago, jarduera politikoari ekin izana. Esanguratsua izan da nazioarteko biratxo.

Herri prozesurako izan badiren baldintza politikoetan zein sozialetan eragiteko erronka dute ezkerreko independentistek. Akaso, berandu abiarazi dute estrategia berriaren bigarren astinaldi hau, baina garaiz daude oraindik, baldintza horiek hortxe segitzen dutelako. •